

“IRAKASLE LANBIDEA” MODULUA

Haur Hezkuntza



**IKASLEENTZAKO GIDA
2021/2022 Ikasturtea**

Moduluko koordinatzailea
Andrea Perales Fernández de Gambo

AURKIBIDEA

SARRERA	2
I. AURREKARIAK	3
II. “IRAKASLE LANBIDEA” IZENENKO MODULUA	3
III. “IRAKASLE LANBIDEA”: MODULU LANA	5
III.1. MODULUKO GAITASUNAK.....	5
III.2. HAUTATUTAKO METODOLOGIA	6
III.2.1. TALDEKAKO LANA.....	6
III.2.2. PROPOSATUTAKO EGOERAK.....	6
III.2.3. TUTORIZATUTAKO LANA.....	7
III.2.3.1. Tutorearen zereginak	7
III.2.3.2. Ikasleen zereginak.....	7
III.2.3.3. Tutorizaziorako faseak.....	8
III.3. MODULU LANAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK.....	8
III.4. MODULU LANAREN ENTREGA	9
III.5. EBALUAZIOA.....	9
III.5.1. Diziplinarteko ebaluaziorako errubrika.....	9
III.5.2. Diziplinarteko ebaluaziorako saioa	11
IV. BIBLIOGRAFIA	12
V. ERANSKINAK	13

SARRERA

Lerro hauen bidez aurkeztera gatozen gida hau Hezkuntza eta Kirol Fakultatean proposatu den diziplinarteko lanaren prozesua azaltzean datza; hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetan ageri den lehen modulua: *Irakasle lanbidea*.

Irakasle lanbidea izena duen modulu honetan ondoko bost ikasgai hauek hartzen dute parte: *Hezkuntzaren Soziologia, Hezkuntzaren Teoria eta Historia, Irakaskuntza-Funtzioa, Komunikazio Gaitasunaren Garapena I eta Garapenaren Psikologia Eskola-Adinean*.

Material honek bi helburu nagusi ditu: batetik, moduluko diziplinarteko proiektuak ekarritako planteamendu berritzailearen ildo nagusiak islatzea; bestetik, horrekin lotuta sor daitezkeen zalantzarik ohikoenak argitzea.

Ondotik, gidaren egitura labur esplizitatu nahi dugu, bertako edukien segida zernolakoa den jakinaraziz. Lehenik, prozesuaren aurrekariak azaltzen dira. Bigarrenik, moduluko lana eta bere testuingurua jorratzen dira. Hirugarrenik, modulu honetan ikasleek egin behar duten modulu lanaren nondik norako nagusiez jarduten da: gaitasunak, edukiak, metodologia, ebaluazioa eta abar. Laugarrenik eta bosgarrenik, eranskinak eta erreferentzia bibliografikoak ageri dira.

Sarrera amaitu aurretik, ikasketa plangintza berriak ekarritako aldaketa ugariren artean, bi azpimarratu nahi ditugu: ikasgaien arteko koordinazioa eta diziplinartekotasuna. Azken batean, elkarrekin aritzeko esparrua da geure Fakultatean eraikitzen ari garena, elkarren ondoan lan egiteko, bakoitzak bere arlotik baina helburu komunekin, geroko maisu-maistrak hobeto prestatu atera daitezzen.

ONGI ETORRI HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATERA!

I. AURREKARIAK

2003-2005 ikasturte bitartean Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolak¹ bere *Autoebaluazio* Txostena garatu zuen, horretatik hausnarketarako eta hobekuntzarako hainbat ondorio atera zirelarik. Ateratako emaitzak orokorrean positiboak izan ziren, baina zenbait ahulezia ere agertzen ziren: koordinazioaren eta tutorizazioaren beharra gomendatzen zen hobekuntzari begirako bide horretan. Ondorioz, Eskolak laster ekin zion hobekuntzak egiteari, horretarako hainbat jarduera antolatuz. **2008 urteak garrantzi handia eduki zuen, horretan hasi baitzen egungo Graduetako plangintza diseinatzen;** Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua eratzeko 1999an abian jarritako prozesua, *Bologna Plana* izenez ezagutzen duguna, guregana ailegatua zen, eta horren eskakizunak bete behar genituen: ECTS kredituak, gaitasunak, moduluak, ... Irakasle formakuntzari begira, Planak bi Gradu ezartzea zekarren: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, horietako bakoitzak lau kurtso edukiz.

Graduen diseinurako, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru campusetako Irakasle Eskolak (gaur egun Fakultate) eta horien barruko Saisetako ordezkariak barne hartu zituen **Eskolen Arteko Batzordea** sortu zen. Batzordeak graduek eduki behar zuten lau kurtsoetako egiturari forma eman zion, horretarako Hezkuntza Ministerioak ezarritako gaitasunak oinarritzat hartuta. Ohitura, kultura eta lan metodoak aldatzea ez da erraza izaten, baina gure Fakultateak gogotsu egin du planteamendu honen alde.

II. "IRAKASLE LANBIDEA" IZENEKO MODULUA

Lehentxeago aipatutako Eskolen Arteko Batzordean hartutako erabakien ondorioz, **ikasgaiak diziplinarteko izaera edukiko zuten multzotan bildu ziren, eta ikasgai multzo horiei modulu izena eman zitzaien.** Horrela, **diziplinarteko irakaskuntza ereduaren aldeko apustua** gailendu zen, zeharkako gaitasunak lortzeko asmoz (definizioak ikusteko, eranskinetan txertatutako glosategira jo daiteke). Hona hemen, hain zuzen, modulu planteamendu hau islatzen duen grafikoa:

¹ Gaur egun Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.



HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Universidad
del País Vasco
Unibertsitateak

Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura II	6 kr
Garapen Psikomotorra II	6 kr
Pentsamendu Matematikoa eta bere Didaktika	6 kr
Musika Adierazpenaren Garapena II	6 kr
Zientzia Esperimentalak HHko Ikasgelan	6 kr
Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza	9 kr
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	9 kr

PRACTICUM II
(12 kr)


Ikastetxearen Antolakuntza	6 kr
Zailtasunak Garapenean eta Ikaskuntzan	6 kr
Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak	6 kr
Eskola Inklusiboaren Oinarriak	6 kr
Informazio eta Komunikazio Teknologiak	3 kr

PRACTICUM I
(8 kr)

Komunikazio Gaitasunaren Garapena II	7 kr
Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza	6 kr
Hautzaroaren Psikologia	6 kr
Informazio eta Komunikazio Teknologiak	3 kr
Ikastetxearen Antolakuntza	3 kr

Adierazpena eta Komunikazioa	30 kr
Dramatizazioaren Bidez Kulturartekotasuna	
Irakurzaletasuna eta Liburutegiak	
Hizkuntzen Trataera Bateratua	

PRACTICUM III
(18 kr)



GRADU AMAIERAKO

LANA (12 kr)

4. Maila

MINORRA (4. Maila)

4. Maila

ESKOLA GAITASUNAK ETA EUSKAL CURRICULUMA (5)

3. Maila

ANIZTASUNA ESKOLAN (4)

2. Maila

IRAKASLEAREN LANBIDEA (1)

1. Maila

ESKOLA ETA CURRICULUMA (2)

1. Maila

KOMUNIKAZIO LANABESAK (3)

2. Maila

HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA

6 kr

HEZKUNTZAREN TEORIA ETA HISTORIA

6 kr

KOMUNIKAZIO GAITASUNAREN GARAPENA I

6 kr

GARAPENAREN PSIKOLOGIA

6 kr

IRAKASLE FUNTZIOA

6 kr

HEZKUNTZAREN PSIKOLOGIA

6 kr

ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKO KULTURA I

6 kr

MUSIKA ADIERAZPENAREN GARAPENA I

6 kr

GARAPEN PSIKOMOTORRA I

6 kr

Hortaz, moduluko egiturak diziplinen arteko zatiketa –urruntzea– gaindituko duen kultura aldaketa eskatzen du. Horrela, planteamendu pedagogiko honek bere zentzu betea hartzen du irakasle-taldeak arlo guztiak integratzen dituen diziplinarteko zereginak elkarrekin planifikatzen dituenean. Izan ere, **modulu lan horren bidez, ikasleek modurako diseinatu diren zeharkako gaitasunak eskuratuko dituzte** eta irakasleen elkarlana bultzatuko duen tresna bihurtuko da.

III. "IRAKASLE LANBIDEA": MODULU LANA

III.1 MODULUKO GAITASUNAK

1. Ikasleek ezagutu, aztertu eta balioetsi ditzatela baldintzatzaile historikoak, sozialak, psikologikoak eta pedagogikoak, eta hauen araberrako hezkuntza jardunak, uler dezaten eskolak gizartean duen eginkizuna eta haiek hezitzaile lanetan duten zeregina gaurko egunean.
2. Ikasleek ezagutu eta azter ditzatela Eskolaren egoera eta arazoak, ikuspuntu orokor diziplinarteko batetik, gai izan daitezen familiekin batera eta hezkuntzako profesionalekin batera lan egiteko, esku-hartzea egokituz komunikazio eta harreman egoera desberdinei.
3. Ikasleak unibertsitatean beharrezkoa den alfabetatze akademikoan trebatzen has daitezen.
4. Ikasleak lan kooperatiboan trebatzen has daitezen.

Lehen modulu honetan **alfabetatze akademikoaz** ere hitz egiten dugu, ikasleek tresna, ohitura eta forma akademikoak neurri egokia har diezaieten graduaren hasieran. Ikasleek lanek - ahozkoak nahiz idatzizkoak- zenbait baldintza bete behar dituzte; aitorpena duten informazio iturriak bilatzea, informazioa era egokian kudeatzea eta erabilitako iturriak ondo aipatzea ezinbesteko baldintzak izango dira. Halaber, ahozko nahiz idatzizko lanek egitura formala izan beharko dute; esate baterako, idatzizko lanei dagokienez: aurkibidea, sarrera, argudioak, ondorioak...

Irakasle lanbidea moduluan beste gako bat **lan kooperatiboa** da. Haur eta Lehen Hezkuntzako graduatuko ikasleek beren etorkizunean irakasle ekipoetan lan egiteko prestatu behar dira. Halaber, gure eskoletako irakasle lanean ikaskuntza kooperatiboa gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari da. Hau dela eta, taldeka lan egiteko gaitasuna garatzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Lankidetzak konpartitutako helburuak lortzeko elkarrekin lan egitea da. Lankidetzan, pertsona bakoitzak berarentzat eta guztientzat onuragarriak diren emaitzak bilatzen ditu (Johnson, Johnson eta Holubec, 1999).

Aipatutako hauek, alfabetatze akademikoak eta lan kooperatiboak, moduluko irakasleek definitu duten **oinarri akademikoa** osatzen dute. Izan ere, halako oinarriaz ikasle berrien egokitzapena bermatu nahi da, unibertsitatera nahiz, etorkizunean, irakasle lanbidera; lanbide honek eskatzen dituen **jarrera eta gaitasuna** kontuan hartuta. Era berean, oinarri akademikoa beharrezkoa da zeharkako gaitasunak garatzeko eta ondorengo modulu nahiz

mailetako lanak arrakastaz burutzeko, azken helmuga Gradu Amaierako Lana izanik (GrAL).

III.2. HAUTATUTAKO METODOLOGIA

III.2.1. TALDEKAKO LANA

2021/2022 ikasturtean, moduluko konpetentziak eta oinarri akademikoaren gakoak jarraian zehaztuko den modulu lanaren bidez lantzea erabaki da. Modulu lan hori **taldeka** gauzatu beharko da, **4 ikasleko taldeetan** hain zuzen ere (salbuespen moduan 5 ikasleko taldeak ere onartuko dira). Lanaren helburuetako bat taldeka lan egiten ikastea da; beraz, ez da onartuko bakarkako lanik edo hasierako lan taldeen desegiterik.

Modulu lana gauzatzeko **talde bakoitzak Haur Hezkuntzarekin lotura duen gai bat aukeratuko du**. Gaia irekia da, baina hurrengo taulan egoera ezberdinen adibide batzuk eskaintzen dira. Horrekin batera, aukeraketaren justifikazioa ere egin beharko du.

COVID-19 pandemiak eragindako ezohiko egoera dela eta, moduluko lana elkarlanean garatzeko orduan, osasun agintariek emandako aholkuak zorrotz errespetatu beharko dira. Alde horretatik, egungo egoera epidemiologikoa aldatu artean, taldekako lana egiteko IKTak erabili beharko dira, taldekideen bilera fisikoak saihestuz. Era berean, egoera aldakorra dela medio, prozesuan beharrezkoak suerta daitezkeen egokitzapenak egin ahalko dira.

III.2.2. GAI EZBERDINEN ADIBIDE BATZUK

Zuen lanaren prozesua errazteko asmoz, gai batzuen adibideak aurkituko dituzue hurrengo zerrendan. Gogoratu, gai librea da, baina hauen artean aukeratu dezakezue.

1. Genero identitatea Haur Hezkuntzan

Umeen lehenengo urteetan, sexu identitatea garatzeaz gain, umeei bere genero identitatea garatuko dute, hau da, gorputz sexuatu bati inposatzen zaion eraikuntza soziala. Horregatik, Haur Hezkuntzako gelan genero berdintasuna sustatzeko parte hartzen duten faktoreak aztertzea ezinbestekoa izango da irakasle lanbidean.

Hori dela eta, Haur Hezkuntzako lehenengo edo bigarren zikloan zentratuz, ikasgela baten espazioa eta materialaren antolaketaren, irakaslearen rola eta familia eta eskolaren arteko harremanaren inguruan hausnartzea eta proposamenak egitea bultzatuko da.

2. Eskolarako egokitzapena

Azken hamarkadetan haurren eskolaratze adinean aldaketa handia bizi izan dugu. Datu horietan eragiten duten faktoreak asko dira, eta Europako herrialdeen artean egoerak oso desberdinak dira. Edonola ere, adinaren arabera, eskolaratzeak haurrari erronka ugari suposatuko dizkio, eta prozesua errazteko eskolaren eta familiaren arteko lankidetzak estua ezinbestekoa izango da.

Etorkizuneko irakasleak izango zaretela kontuan hartuta, eskolaratze prozesua ezagutzea interesgarria da. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko eskolaratze prozesua aztertzea proposatzen da, ikuspuntu historiko eta sozialetik azken urteotako bilakaera aztertuz, edo beste gizarte batzuekin alderatuz. Era berean, adinaren eta une ebolutiboaren arabera haurraren prozesu psikologikoa aztertzea eskatzen da, baita prozesu hori errazten lagun dezaketen faktoreak ere.

3. Anai-arreba baten jaiotza

Europako herrialdeko familiak osatzen dituzten seme-alaben kopurua murriztu bada ere, Haur Hezkuntzako ikasleek, sarritan, beraien bizitzan eragin handia izango duen aldaketa bati aurre egin behar diote, hain zuzen, anai-arreba txiki baten jaiotzeari. Egoera horrek zenbait ondorio izan ditzake haurraren bizitzan, portaeran edo emozioetan, bai familia mailan, baita eskolan.

Haur Hezkuntzako irakasleak izango zareten heinean, Euskal Autonomia Erkidegoko familien osaketaren azterketa bat egitea proposatzen da, baita familien anai-arreba baten jaiotzak umeengan ekar ditzakeen ondorio positiboak eta negatiboak ikertzea ere. Era berean, eskolatik une honetan umeengan lagungarriak izan daitezkeen jarrerak, dinamikak edo zereginak baloratzea eskatzen da.

Beste aukera batzuk izan daitezke adimen emozionala Haur Hezkuntzako gelan, elikadura osagarria lehenengo urtean zehar, elebitasunaren sustapena, familia eta eskolaren arteko elkarlana, eskola segregazioa ... edo zuei, Haur Hezkuntzako irakasle bezala, interesgarria iruditzen zaizuen beste gai bat.

III.2.3. TUTORIZATUTAKO LANA

Zeharkako gaitasunak lantzea ahalbidetzen duen modulu lanaren prozesua tutorizaturik izango da; ikasleek egindako lanaren **gertuko jarraipena eskaintzeko asmoz**, taldeak moduluko irakasgaien arteko irakasleen artean banatuko dira. Era horretan, **irakasle bakoitzak bere taldeak tutorizatuko ditu** lauhilekoan zehar, ikasle horientzako erreferentzia bihurtuz. Hala ere, tutorizazio-prozesuan edozein arazo sortuz gero, moduluko koordinatzaileen laguntza edukiko dute horiei aurre egiteko.

III.2.3.1. Tutorearen zereginak

Funtzionamendu kolektiboaren arrakastan eragin handia edukiko du irakasle bakoitzak bere zeregin propioak konpromisoz eta arduraz egiteak. Zeregin zerrenda luzea izan baliteke ere, hona hemen garrantzitsuenak:

- Modulu lanaren koordinaziorako bileretan parte hartzea.
- Moduluarentako Akordioen Gida ezagutzea eta errespetatzea (Fakultateko webgunean eskuragarri).
- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Irakaskuntza gidan esplizitatzea hurrengo aspektu hauek:
 - o Moduluko gaitasunak
 - o Modulu lanaren ebaluazio irizpideak (moduluko irakasle taldeak adostutakoak)
- Modulu lana irakasle taldeak adostutako errubrikaren arabera ebaluatzea.
- Diziplinarteko ebaluazio saioetan parte hartzea eta horretan partekatutako diziplinarteko notak bere ikasgaietan aplikatzea.
- Balorazio saioetan parte hartzea.

III.2.3.2. Irakasleen zereginak

Irakasleen kasuan adierazgarriak izan daitezkeen zereginak azpimarratuko ditugu segidan:

- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Moduluarentako Akordioen Gida ezagutzea eta errespetatzea (Fakultateko webgunean eskuragarri).
- Modulu Gida ezagutzea eta errespetatzea.
- Irakasle taldeak prestatutako modulu jardueretan aktiboki parte hartzea.
- Talde moduan funtzionatzea, horretarako jarraian agertzen den definizioari erreparatuz: "Ezagutza eta trebetasun osagarriak erakusten dituzten pertsonak, helburu komuna dutenak eta elkarren erantzuleak hartzen direnak. Lankide guztiak garrantzitsuak dira eta, beren ekarpenen bidez, sinergiak garatzen lagun dezakete".
- Eskatutako zereginak garaiz bidaltzea moduluko posta elektronikora.
- Azken ebaluazioa egingo duen ikaslea izanez gero, irakasgaietako irakasle bakoitzaren tutorego orduetatik pasatzea lehenengo hilabetean zehar.
- Kontuan hartzea uneoro jarrera gaitasuna bezain garrantzitsua dela.

III.2.3.3. Tutorizaziorako faseak

Modulu lana egoki gauzatu ahal izateko, irakasle taldeak hiru asteko plangintza adostu du. Jarraian eskaintzen den koadroak zehazten du aste bakoitzerako aurreikusten den planteamendua; **azpimarratu beharrekoa da ikasturtearen harreran modulua eta modulu gida aurkeztuko dela**. Era horretan, ikasleek, beharrezkoak diren erabakiak hartu baino lehen, denbora edukiko dute gida lasai aztertzeko.

TUTORIAZIO FASEAK ETA PLANGINTZA	
5. ASTEA (Urriak 11-15)	<ul style="list-style-type: none">- Ikasle taldeak osatu.- Proposatutako egoeren artean bat aukeratu.- Taldekideen izen-abizenak eta aukeratutako egoera eGelan baliatuko den estekara bidali beharko da zehaztuko den egunerako.- Astearen bukaerarako jakinaraziko da ikasle talde bakoitza zein tutorerekin arituko den.
10. ASTEA (Azaroak 15-19)	<ul style="list-style-type: none">- Tutore bakoitzak bere ikasle taldeekin irakas taldeak adostutako modulu jarduerak gauzatu dituzte.
15. ASTEA (Abenduak 20-22)	<ul style="list-style-type: none">- Tutore bakoitzak bere ikasle taldeekin irakas taldeak adostutako modulu jarduerak gauzatu dituzte.- Modulu lanaren entrega: eGelan baliatuko den estekara bidali beharko da zehaztuko den egunerako. Tutoreari posta elektronikoz bidaliko dio lana.- Banako erantzukizunaren ebaluazioa: taldekide bakoitzak eGelan baliatuko den estekara bidali beharko du beste taldekideen ebaluazioa (horretarako eskainiko den dokumentu ofiziala baliatuta). Bere tutoreari posta elektronikoz bidaliko dio ebaluazioa.

III.3. MODULU LANAREN EGITURA ETA EZAUGARRIAK

Modulu lana gauzatzeko jarraian agertzen den egitura proposatzen da:

- I. Sarrera: egoeraren aukeraketaren justifikazioa eskaini beharko da.
- II. Testuingurua
- III. Proposamenak
- IV. Ondorioak
- V. Erreferentziak
- VI. Eranskinak

Talde bakoitzak **gehienez ere 10 orrialdeko modulu lana** gauzatu du; **azala, bibliografia orria eta eranskinak ez dira kontatzen**. Modulu lana gauzatzeko, irakasle taldeak eskainiko duen **plantila ofiziala baliatu** beharko da.

Ezaugarri formalak: Arial 11, EHUseriff 11 edo EHU sans 11. Lerroartea 1,5 eta marjinak 2,5 cm.

Kontuan hartu beharreko bestelako alderdiak

Hizkuntzaren erabilera zuzena: ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta, akatsak oso nabariak direnean, edota testua ulergaitza denean, lana ez da zuzenduko eta hurrengo deialdirako hobetu beharko da. Hizkuntza erabilera ebaluatzeko, Fakultatean adostutako errubrika baliatuko du irakasle taldeak. **5 akats larri baino gehiago (ergatiboa, komunztadura, ortografia, aditzen jokaerak) ematen badira, lana ez da gaindituko.**

Iturri kopurua: Gutxienez 8 iturri zientifiko erabili beharko dira, moduluan lantzen diren irakasgaiekin lotura dutenak.

Plagioa: Ikasleek modulu-prozesuan zehar landutako zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko dituzte. Plagioa dagoela detektatuz gero, txostena baztertuko da eta modulu lana ez da gaindituko.

III.4. MODULU LANAREN ENTREGA

Modulu lana **15. astean entregatuko da**, irakasle taldeak zehaztuko duen epearen barruan. Modulu lana **PDF formatuan (bertsio elektronikoan, paperean ez) entregatu beharko da. Taldearen ordezkariak kopia bat bidaliko dio bere tutoreari**, EHUko posta elektronikoaren bitartez. **Bestetik, modulua eGelan baliatuko den estekan igoko dute lanaren beste kopia**, lanaren erregistro ofiziala eman dadin.

III.5. EBALUAZIOA

Modulu lanak gehienez ere bi puntuko kalifikazioa jasoko du. Bi puntu hauek **betiere adostutako errubrika kontuan hartuz** aterako dira. **Etengabeko ebaluazioa** egiten duten ikasleen kasuan, **tutore bakoitzak bere ikasle taldeen ebaluazioa gauzatuko du. Azken ebaluazioa** gauzatzen duten ikasleen kasuan, azterketa data ofizialean ebaluazio proba egingo dute. Proba honen inguruko xehetasun gehiago izateko, kontaktatu modulu koordinatzailea.

III.5.1 Diziplinarteko ebaluaziorako errubrika

INGURU AKADEMIKORA ETA IRAKASLE LANBIDERA EGOKITZEA	Gaitasunen garapen bikaina	Gaitasunen garapen ona	Gaitasunen garapen nahikoa	Gaitasunak garatzen segitu beharra	Banaketa
Edukien eta arrazonomenduzientifikoaren egokitzapena	Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako alde guztiak oso zuzen arrazoitzen eta aplikatzen dituzte.	Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako alde nahikoak egoki arrazoitzen eta aplikatzen dituzte.	Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako oinarrizko aldeak aplikatzen dituzte. Oinarrizko arrazonomendua egiten dute.	Ikasgaietan eta tutorizazio faseetan landutako aldeak direla eta, ia ez dituzte aplikatzen. Koherentziarik eta arrazonomendurik eza.	% 40
Informazioa bilatzeko eta kudeatzeko teknikak	Ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak ez ezik, beste ekarpen asko ere erabiltzen dituzte, bibliografia errebisio sakona erakutsiz (liburuak, aldizkariak, internet...). Iturri guztiak zuzen aipatzen dituzte testuan nahiz bibliografian (APA arauak).	Batez ere, ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak erabiltzen dituzte, beste ekarpenen bat ere erabiliz. Liburuak, aldizkariak, internet... ondo konbinatzen dituzte. Iturri gehienak ondo aipatu dituzte..	Ikasgaietan eta tutorizazioetan emandako iturriak besterik ez dituzte erabiltzen. Iturri gehienak ondo aipatzen dituzte..	Iturririk eza. Erabilitako iturriak ez dituzte justifikatu, ezta ondo aipatu ere.	% 30
Lan kooperatiboa	Ekipoak funtzionamendu bikaina erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan; kohesio bikaina erakutsi du eta gatazkak bideratzeko eta adostasuna lortzeko lan egin du.	Ekipoak funtzionamendu ona erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan; kohesio ona erakutsi du eta gatazkak bideratzeko eta adostasuna lortzeko lan egin du.	Ekipoak hainbat ahulezi erakutsi du modulu lana prestatzeko saioetan; kohesio maila baxua erakutsi du, gatazkak bideratzeko eta adostasuna lortzeko lan egiten saiatu bada ere.	Ekipoak ahulezi larriak erakutsi ditu modulu lana prestatzeko saioetan; ez du inongo kohesiorik erakutsi eta ez du jakin gatazkak bideratzen ezta adostasuna lortzen.	% 20
Banako erantzukizuna (Ikasleen koebaluaziorako)	Modulu lana prestatzeko saioetan paper aktiboa jokatu du eta ikaskideen parte hartzea bultzatu du. Ekipoari egindako ekarpena bikaina izan da.	Modulu lana prestatzeko saioetan paper aktiboa jokatu du eta ikaskideen parte hartzea bultzatu du. Ekipoari egindako ekarpena ona izan da.	Modulu lana prestatzeko saioetan ez du oso aktibo jokatu. Ikaskideek bere parte hartzea bultzatu behar izan dute. Ekipoari egindako ekarpena nahikoa izan da.	Modulu lana prestatzeko saioetan ez du parte hartu. Ekipoari ez dio ekarpenik egin.	% 10

Errubrikan ageri denez, lehenengo irizpidea edukiaren egokitasun mailarekin erlazionatzen da; ikasgaietan eta tutorizazioetan arrazonamendu zientifikoa aplikatzearekin, hain zuzen ere. Irizpide honi irakasle taldeak adostutako notaren % 40 dagokio. Bigarren irizpideak modulu lanetan iturriak erabiltzeko moduari erreparatzen dio. Horretarako irakasle taldeak APA (*American Psychological Association*) arauen erabilera kontsentsuatu du. Alde formal honi notaren % 30 dagokio.

Beste bi irizpideak ikasleen lan kooperatiboarekin (% 20) eta banakako erantzukizunarekin (% 10) lotuta daude; aipatu den moduan, uneoro kontuan hartu behar da jarrera gaitasuna bezain garrantzitsua dela. Hori ebaluatzeko, alde batetik, tutore bakoitzak kontuan hartuko du modulu lana prestatzeko eskaini diren saioetan lan talde bakoitzak erakutsi duen inplikazioa eta jarrera; beste alde batetik, taldearen barruko kide bakoitzak ebaluatuko du beste kideek egindako lana eta taldeari egin dioten ekarpena. Irakasle taldearen iritziz, aukera hau eskaintzeak lagunduko digu talde bakoitzak egin duen nondik norakoen gora beherak ezagutzen eta, ondorioz, talde-funtzionamenduan sakontzen.

III.5.2. Diziplinar-teko ebaluaziorako saioa

Aipatu den bezala, tutore bakoitzak bere ikasle taldeak tutorizatuko eta ebaluatuko ditu; diziplinar-teko ebaluazio saioan tutore bakoitzak beste tutoreei bere kalifikazioen berri emango die eta, era horretan, tutore bakoitzak tutorizatu ez dituen ikasleen kalifikazioak eskuratuko ditu. Horrek, diziplinar-teko planteamenduan, elkarrenganako konfiantza kontuan hartzea eta bultzatzea dakar.

Ebaluazio saioan jasotako nota ikasgai guztien ebaluazioan islatuko da. Nota honek, gehienez, 2 puntu ekarriko ditu ikasgai bakoitzeko 10etatik.

IRAKASLEAREN LANBIDEA

IV. BIBLIOGRAFIA

- Cano, E. (2008). La evaluación por competencias en la educación superior. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*, 12(3), 1-16.
- Carlino, P. (2005). *Escribir, leer y aprender en la universidad: Una introducción a la alfabetización académica*. Fondo de Cultura Económica.
- Echevarría, M.A. (2009). Alfabetización académica en el ámbito universitario, in Rojo, J., Ruiz, U. eta Ruiz, K. (arg.) *Hizkuntza eta literaturaren irakaskuntza eta ikaskuntza* (93- 108 orr.). Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Etxaniz Erle, X. (2004). *Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Titulazioen Autoebaluaziorako txostena*. ANECara bidalitako barne dokumentua.
- Grisaleña, J. eta Campo. A. (2010). Las escuelas que aprenden: características básicas. *Organización y gestión educativa. Revista del forum Europeo de administradores de la educación*, 3, 121-145.
- Goodrich, H. (2000). Using Rubrics to Promote Thinking and Learning, *Educational Leadership*. *Educational Leadership*, 57(5), 13-18.
- Hernández, F. et alt. (2005). *Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Titulazioen Kanpo-Ebaluazioaren txostena* (Publikatu gabeko dokumentua).
- Johnson, D. W., Johnson, R. T., & Holubec, E. J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Paidós.
- San Fabián, J. L. (2006). La coordinación docente: condiciones organizativas y compromiso profesional. *Participación educativa*, 3, 6-11.
- Zabalza, M. A. (2003). *Competencias docentes del profesorado universitario, calidad y desarrollo profesional*. Narcea.

V. ERANSKINAK

-GLOSATEGIA

- ENTREGABLEA edo aurkeztu beharreko lana (entregable gazt. eta deliverable ingl.): Entregablea prozesu baten ondoriozko emaitza da, dela ahozkoa, dela idatzizkoa. Emaitza honen bidez ikasleak gelan ikusitako edukiak ulertu, barnetatu eta aplikatu dituela frogatzen du. Entregableak azken ebaluazioaren zati dira; alde horretatik, hortaz, lan ebaluagarriak dira.
- ERRUBRIKA: ebaluaketa tresna bat da, zeregin edo jarduera baten maila eta kalitatea neurtzeko erabiltzen dena; errubrikan zeregin edo jarduera horiek ebaluatzeko irizpideak islatzen dira, bakoitzari esleitutako puntuazioa islatuz.
- GAITASUNA: egiten jakitea da, era konplexu batean, ahalmen eta trebetasun askotarikoak (kognizio, afektibitate, psikomotrizitate edo gizarte mailakoak) nahiz ezagupenak bateratu eta egokitzetik sortzen dena, izaera komuna duten egoeretan (Lasnier, 2000 in Cano, 2008).
- IRAKASKUNTZA GIDA: irakaskuntza gida ikasgaiaren nondik norakoak garbi islatzen dituen dokumentua da; horretan, gutxien dela, hezkuntza-helburuak, programa bera, programatutako jarduerak eta ebaluaziorako irizpideak agertuko dira, azken hauen kasuan, hala behar izanez gero, proba bakoitzaren haztapena ere. Hezkuntza-helburuek, programatutako jarduerak eta ebaluaziorako irizpideek elkarrekiko koherentzia agertu beharko dute. Irakasgaiaren oinarrizko programa talde ezberdinetako ardura duten irakasleek adostu beharko dute. Ados jartzen ez badira, Saileko Kontseiluak, irakasgaia ematen duten irakasle guztiak entzun ondoren, guztien irakatsi beharreko gaiei buruzko erabaki arrazoitua hartuko du, bai eta onartuko diren salbuespenei buruzkoa ere.
- MODULUA: diziplinarteko irakaskuntza eredia da; zenbait diziplinaren arteko harreman koherentea da, helburu komun batera doana: modulurako ezarrita dauden gaitasun orokorrak lortzea.
- MODULUKO LANA edo DIZIPLINARTEKO LANA: moduluko ikasgai guztien artean zeharkako gaitasunak lantzeko proposatzen den diziplinarteko zeregina.
- ORDU PRESENTZIALAK: Ikasleak gelan eta lanean ematen dituen orduak dira.
- ORDU EZ PRESENTZIALAK: Ikasleak gelatik kanpoko lanetan ematen dituen orduak dira, bibliografia kontsultatzen, lanak egiten, azterketak prestatzen, eta abar. Lanordu hauen bidez ikasleen autonomia sustatu nahi da.
- TALDEA: Ezagutza eta trebetasun osagarriak erakusten dituzten pertsonak, helburu komuna dutenak eta elkarren erantzuletzat hartzen direnak. Lankide guztiak garrantzitsuak dira eta, beren ekarpenen bidez, sinergiak garatzen lagun dezakete.